


HERNANIKO kronika

2000 urtea
Irailaren 21a
Osteguna
Alea: 65

TOLAREAK ANTOLATUTA

'Sagarra eta sagardoaren festa' martxan da

Gaur Antxon Agirre Sorondo adituaren hitzaldia izango da Biterin 20:00etan.



Sagardogilea punteri fin askoarekin iazko festan.

Tolarea sagardo naturalaren kofradiak sagarra eta sagardoaren festa jarri du martxan aurtan ere. Astelehenez gero, argazki erakusketa didaktikoa ikusgai dago Biteri kultur etxean eta Biterin bertan, gaur, *costumbres y curiosidades de la sidra* izenburupean hitzaldia emango du Antxon Agirre Sorondok.

IGANDEAN PLAZAN

Igandeko eguna 09:00etako kalejirarekin hasiko da; 10:30etan 80 sagar mota baino gehiago izango dira Gudarien Enparantzako sagar era-

kusketan; 11:00etan *Kixkia*-rekin zeinek sagar gehiago bildu txapelketa egingo da. Animatzen direnek belar pixka bat botata harri gainean ari beharko dute; eta 12:00etan Barkaiztegik sagarra bildu eta muztioa ateratzearainoko prozesu guztia erakutsiko du. Baita edatekoa ere.

Arkupeetan erreminta erakusketa izango da goiz osoan (kixkiak, enkortxadorak, matxakak...), eta auleziak jo ez gaitzan sagardoa eta pintxo beroak nornahik izango ditugu aukeran.

II. TRIKITIXA TXAPELKETA

Sagardo festarekin batera trikitixa txapelketa izango da plazan. 11:30etatik aurrera 16 urtez azpiko 6 bikote ariko dira nor baino nor: Asteasu, Ataun, Azkoitia, Azpeitia eta Hernaniko gazteek euren abildadea erakutsiko digute.

Txapeldunek Txapela, trofeoa eta 15.000 pzta jasoko dituzte, bigarrenen trofeoa eta 12.000, hirugarrenen trofeoa eta 10.000 eta gainerakoei 8.000 pzta. Hernaniko lehen bikoteak 10.000 pzta izango ditu. □

'AURREKONTU PARTE HARTZAILEAK'

Gaur edatetuak, gazteak eta merkatariak bilduko dira

Edadetuek zazpitan dute zita eta zortzitan besteei.

ASTELEHENAZ geroztik martxan da datorren urteko aurrekontuak egiteko udalak erabaki duen bidea: herria sektoreka banatu, eta sektore bakoitzari aurrekontu proposamen orokorrak eskatu, propio horretarako egindako bileretan. Gero batzarra egin eta han erabakiko da aurre-

kontuen oinarria izango dena eta oposizioko taldeei bidaliko zaiena. Aste honetan, bileren informatiboak egiten ari dira. Azkena bihar izango da udaletxeko langileekin eta nekazariarekin.

Datorren astean proposamenak biltzeko bilerak hasiko dira. □

MENDIRIZ-MENDI

'Pico tres provincias-Peña Prieta-Palencia' trabesia datorren astebururako

Larunbatean 09:00etan aterako dira Atsegindegitik.

ABUZTUKO etenaldia eta gero Mendiriz-mendi elkarteak ekin dio hilean behingo martxari. Joan den igandean, gaztetxoak Erniora joan ziren. Datorren asteburuan, berriz, 2000 metrotik gorakoetara joko dute: *Pico tres provincias* (2497 m) eta *Peña Prieta* (2539 m) eta *Palencia*.

Izena emateko epea gaur bertan bukatuko da. Bazkideentzat 6000 pezeta da eta bazkide ez direnentzat 7000, bidaia eta pentsio erdia ordaintzeko. Izena emateko orduan 2000 pezeta aurreratu behar dira. Lotarako zakua eramatea ezinbestekoa da.

☎-943-332745 □

Gripearen aurkako txertoa jartzen hasi dira anbulatorioan

Denera, 1900 lagunek hartuko du txertoa aurtan.

EUSKO Jaurilaritzako Osasun sailak hasi du gripearen aurkako txertoaren kanpaina. Hauek dira hartu beharko luketenak: 65 urtetik gorakoak, diabetikoak eta biriketarik, gibeletik edo giltzurdinetatik gaizki dabilzanak, eta hepatitis paseak. Orain-

goz, gripearen aurka ez dago ez harrapatzea beste sendabiderik. Anbulatorioetik esan zaigunez, iaz 1900 hernaniarrak hartu zuten txertoa eta aurtan ere inguru horretan ibiliko da. Bakuna jar-tzeko txanda eskatzeko:

☎-943-557750 □

HERNANIKO UDAL EUSKALTEGIA

00-01 IKASTURTEA:

Maila guztiak. Ikastaro bereziak Erritmoak

Goizez, arratsalde eta gauetz.

Matrikulaldia

Irailaren 22ra arte.

Galde ezazu euskaltegia

(Biteri Kultur Etxean)!

☎ 943 331896

e-mail: euskaltegi@hernani.net

HERNANIKO UDALA



HERNANI HIZKUNTZAK (INGELES)

MATRIKULA IREKITA

☎ 943 33 11 08

KALE NAGUSIA 41, 1
20.120 HERNANI

ZORIONAK!

Haritz, Ibai, Javi, Jon, Amaia,
Eluska, Laura, Andoni eta Xabi

CAMBRIDGE UNIVERSITY
FIRST aprobataz egatik.



GALARRETA JAI-ALAI



FRONTOIA

Galarreta gaina z/g - HERNANI

Gaur arratsaldeko 16:00etatik aurrera erremonte jaialdia:

- ⇒ 1. partidua ZALAKAIN - ETXEBERRIA II / ZEBERIO III - BADIOLA
- ⇒ 2. partidua BITORIA - EIZAGIRRE / URRETABIZKAIA I - LIZASO
- ⇒ 3. partidua MATXIN - AIZPURU / KALONGE - IRIARTE
- ⇒ 4. partidua IÑIGO - URRETABIZKAIA II / LEZEA - ZANDIO

TTARLA DANTZA TALDEA

"Dantzari helduak behar ditugu"

Gaur da apuntatzeko azken eguna: Biterin seietatik zazpietara egongo dira zai.



Atzo, jendea izena ematen... eta pastak jaten!

TTARLA dantza taldeak ikasturte berriari heldu dio. Duela 9 urte inguru dantzari talde bat sortu zen Hernanin, eta bi urte beranduago Ttarla sortu zen handik, Larraitx Iglesiak dantzariak esan digunez.

120 DANTZARI

Euskal dantzak ikasten eta dantzatzeko ia 120 dantzari ditu Ttarlak. Lau urtetik hogeita sei urte bitartekoak, 10 taldeetan banatuta. Mutilak, ordea 15 bakarrik dira, eta hamar urtez azpikoak. Umeak 4 urterekin hasten dira dantzan. Umez ondo osatuta daude, baina, helduetan dituzte arazoak.

FESTAK, BODAK...

Gehiena Hernanin eta inguruko festetan ibiltzen direla esan digu Larraitxek. Tartean izaten dira bodak, omenaldiak edo bestelako ospakizunak. Asteburuko irtenaldiak eta beste herrietako dantzariekin trukaketak ere egiten dituzte. Umeekin Santiomendira joaten dira elkar hobeto ezagutu eta talde giroa sortzeko. Oionera ere joan ziren eta, ordainetan, haiek Hernanira etortzekoak dira.

Dantzarako grina izan eta giro hau gustoko duenak ez du gaur arratsaldeko seietan Biterira azaldu besterik. □

Mertxe Etxeberria alkateak Audientzia Nazionalen deklaratu zuen atzo

Ekain Ruiz herriko seme kuttun izendatu zuteneko plenoan hartutako erabakiengatik izan da.

HERNANIKO alkateak Audientzia Nazionaleko fiskalaren aurrean deklaratu behar izan zuen atzo. Abuztuak 19an, Forenseek Ekain Ruiz ofizialki identifikatu eta gero, Hernaniko Udalak pleno berezia egin zuen. Plenoan hartan, besteak beste, Ekain Ruiz Seme kuttun izendatu eta erraustak udal txean jartzea erabaki zen. Epaila batek, ordea, baliorik gabe utzi zuen pleno hura. Orain, deklaratzera joan behar izan du delitu aztarnarik ote dagoen ikustera. Udaletik jakin dugunez, abokatuak "dena oso ondo" joan da esan du. □



Mertxe Etxeberria alkatea

ESKU PELOTA IKASTURTEA

Irailaren 29an amaituko da izen emateko epea

ASTELEHENEAN zabaldu zen esku pelotan aritu nahi duten gaztetxoentzako izena emateko epea eta hilaren 29an amaituko da. Adin ezberdinetako haurrentzako izango dira ikastaroak (benjamin, alebin eta Infantilen-tzat). 1988tik 1991ra jaiok agertu litezke.

Interesatuak astelehen, asteazken edo ostiraletan kiroldegiko atezaintzan eman beharko dute izena. □

ALDERDI EGUNA

Salburuara joateko gaur eman behar da izena

DATORREN igandean ospatuko da Salburuako zelaletan Eusko Alderdi Jeltzalearen Alderdi Eguna. Hernaniko EAJk autobusa aterako du. Izena emateko gaur arratsaldeko seietatik aurrera 943 550212 telefonora deitu. □

EH-REN BATZARRA

Kurtso politiko berriaren ingurukoa izango da

EHk herri batzarra du gaur Hernanin, ildo politikoen inguruan eztabaidatzeko. Arratsaldeko 7:30etan Biterin izango da. □

JUBILATUAK ALMERIARA

Gaur atera eta urriaren batean bueltatzekoak dira

GOIZEKO zazpitan hartuko dute Atsegindegin Almeriarako autobusa. Denera, 55 lagun inguru doaz. Hara iristean, egun pare bat edo bertan pasa eta gero inguruko herriak bisitatzera joateko asmoa dute.

LARUNBATEAN ELIZONDORA

Mediterraneo aldera joan ez direnek ere asteburu honetan badute nora joana. Normalean, Jubilatutxoak ia larunbatero antolatzen du eskurtsioren bat. Datorren larunbaterako Elizondora antolatu dute egun pasa. □

HITZ BITAN



AEKko irakasleak Leokan ikasturtearen aurkezpena egiten.

✓ EUSKALTEGIAK

Euskaraz ikasteko matrikula epea azken egunetan da. Bihar bukatuko da Udal Euskaltegian izena emateko epea eta hilaren 27an AEKn. Udalak diru laguntza haundiak ematen ditu eta ikasleak matrikularen zati haundiena jaso egingo du bueltan, klaseetara asistentzia ia erabatekoa bada. Udal Euskaltegiak datorren astelehenean bertan hasiko du ikasturtea. □

AGENDA

ERAKUSKETAK

Hernaniko Udalaletxea:
mende bat bizirik
Udalaletxean bertan,
18:00-20:00.

Kuba orain hamar urte.
Argazki erakusketa
Zumardi jatetxean.

Juan Ramon Perez
Oreretarraren Kuadroak
Txema tabernan.

Argazki erakusketa didaktikoa
Tolareak antolatuta
Biteri kultur etxean

Argazki erakusketa AEKri buruzkoa
Onyi tabernan eta arratsaldeaz azokan.

Diapositiba emanaldia AEKri buruzkoa
Garin tabernan 20:00etan

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

► Taxiak: 943 550093
► Udaltzaingoa: 943 333288
► DYA: 943 464622
► Autobusak: 943 556662
► Anbulatorioa: 943 557750

✚ FARMAZIAK

► Egunez: Gomez
Nagusia, 15
☎ 943 554892
► Gauez: Sagastiberri
Urbieta, 7
☎ 943 552941

Ttarla Dantza Taldea

00/01 kurtso berrirako izen emateko egunak

Irailak 20 eta 21

Ordua: 18:00etatik 19:00etara

Lekua: Biteri Kultur Etxea

Oharra: Kameteko argazki bat eramane behar da

IRAGARKI MERKEAK

Neska bat behar da arratsaldean haur bat zaintzeko.
☎ 943-551092

